



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Administrazio Orokorreko Teknikariaren lau (4) plaza betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia zabaltzea.

Ekainaren 2ko 2460/2025 Alkatetza Dekretuaren bitartez, honako hau xedatu da:

Lehenengoa: Administrazio Orokorreko teknikariaren 5 plaza bete arte plaza 1 gehitzea deialdiari. Plaza horiek eskala hauetakoak dira: Administrazio Orokorra, Azpieskala Teknikoa, Goi Mailako Teknikarien klasea, A1 azpitaldea (saikapena). Izan ere, lanpostu batzuk hutsik geratu dira Administrazio Orokorreko teknikariaren lanpostuetan, eta 2025eko EPEan gainditu dira. Gehitzen den plazak ezaugarri hauek izango ditu:

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA

Plaza	Azpieskala	Azpitaldea	Zk.	Txanda	HE	Derrigort. data
Administrazio Orokorreko teknikaria	Teknikoa	A1	1	Irekia	C1 (3. HE)	Bai

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Hirugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, bestela, berraztertzeko errekurtsoa hilabeteko epean, Ebazpena eman duen organoaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2025eko ekainaren 10ean.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren